tolosaldeko eta leitzaldeko

# hitza

Harpidedunei banatua ▸ Igandea ▸ 2005-04-03 ▸ III. urtea ▸ 571. zenbakia

TOLOSALDEA ▸

## Jaurnartze garaiaz hizketan

Bigarren sakramentua ▸ I-IV




# Batasunak kanpaina jarri du abian, eskubide zibil eta politikoak aldarrikatuz

**BATASUNA ▸** Euskal Herriarentzat eszenatoki berria sortuko bada, «indartu egin behar da botoekin»

**ILEGALIZAZIOA ▸** Horren aurrean, «denok erantzun behar dugu mezu berarekin: 'ilegalizazioari ez!'» ▸ 6



Giza-katea egin zuten. I. GARCIA




## «Euskadiren etorkizuna euskaldunek erabakiko» dutela esan du Ibarretxek

**TOLOSA ▸** «Boto uholdea behar dugu Madrilen itxikeriari ezetz esateko». Hori esan zuen atzo Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Tolosan, eta Gipuzkoan egiten zuen lehendabiziko ekitaldi politikoan. Ziarreta eta Egibar izan zituen alboan. IRATXE ETXEBESTE ▸ 7

**J. AGIRREZABALA ▸**
TXIRRINDULARIA

## «Hasi berritan, ezin diot neure buruari askorik eskatu»

Andalucia-Paul Versan taldeak fitxatu du ▸ 2-3



Joseba Agirrezabala. I. GARCIA

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Helbururik baduzu?

Profesionalak hezituz

OSTALARITZA ETA TURISMOA
- Jatetxea arloa.
- Sukaldaritza (EM).
- Jatetxea eta tabernako zerbitzuak (EM).
- Gozogintza eta okingintza (EM).
- Sukalde-laguntzailea, I. maila.
- Ostatua arloa.
- Bidaia agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

INFORMATIKA
- Informatika-sistemen administrazioa (A eta D).
- Informatika-aplikazioen garapena (A eta D).
- Sistema informatikoen ustiaketa (EM).

MERKATARITZA ETA MARKETINA
- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza (EM).
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.

ADMINISTRAZIOA
- Administrazioa eta finantzak (A eta D).
- Administrazio-kudeaketa (EM-A eta D).
- Idazkaritza.
- Bulego-laguntzailea, I. maila.

www.cebanc.com

943 316 900

8 ETA 9AN HEZKUNTZA SALOIAN EGONGO GARA

Cebanc-Cdea
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 •Donostia

ARMA eta GIDA baimenak
- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena

R.P.S 401/04

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA
San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA
15:30etik 19:00etara

**UZTURRETIK ▸ EKAIN GARMENDIA**



# Gaizki funtzionatzen duen pieza

Lagun batekin hizketan ari nintzen, honetaz eta hartaz, kafea hartu eta gero, psikologoarenera joaten hasi berria dela esan zidanean. Pattal xamar omen zebilen azkenaldian, lanerako-eta nekatu antzera, eta laguntza apur bat ez denez inoiz gaizki etortzen, hura ordaintzea erabaki omen zuen. Ez ninduen batere harritu, kontsultetan bueltaka dabilen hamazazpigarren laguna dudala uste baitut. Moda bat? Ez, ez dut uste.

Ez nuke gaiaz arinkeriaz aritu nahi, baina egonkortasunaren bila medikuarenera errazegi jotzen dugula uste dut. Eta horren arrazoia egungo bizimoduak ezartzen dizkigun ereduetan aurki dezakegula esango nuke. Sarritan entzuten dugu kontsumoaren gizartean murgilduta bizi garela. Ez naiz halere gure gizartearen desgraziak eta gaiztakeriak aireratzen hasiko; ez da hori nire asmoa (parafernalia marxista beste baterako utziko dugu). Helburua produktuaren kontsumoa den honetan, 'ongi egotea' erabilgarria izatearekin identifikatzen dugu: ongi dago funtzionatzen duena, kontsumigarria dena. Horregatik, ezin erabil dezakeguna konpondu egin beharra dago. Eta, joder, kotxearen motorrarekin hori ez dago gaizki, baina geure burua baremo horien arabera neurtzea...

Honela izango litzateke funtzionatzen ez duen kotxe motorraren kasua geure buruari aplikatuta: 'nire eginbeharrean ongi funtzionatzen ez dudanez, medikuarenera joango naiz hark konpon nazan; eta berriro soziable eta erabilgarria naizenean, jada sendatuta egongo naiz'. Eta esajeratzen ari naizela iritziko diozue, baina egiaz uste dut askok honela jokatzen duela. Akaso pentsamolde horretan egongo da gure egiazko gaitza. Akaso pattal xamar egotea eta boladatan ongi ez funtzionatzea gure izaerari berezko zaizkiola onartzetik hasi beharko dugu. Niri behintzat, beti erabilgarri dagoen pertsonaren imajina ez zait gehiegi atsegin. 'Erabilgarri' eta 'pertsona' gehiegi lotu nahi ez ditudan bi hitz baitira.



## Aberri Eguna gogoan izan dute eskualdeko herrietan

**ASTEKO IRUDIA ▸** Aurreko igandean Aberri Eguna izan zen eta eskualdeko hainbat herritan kontuan izan zuten. Udalbiltzak deitutako ekitaldiak izan ziren herri askotan udaletxeen aurrean, argazkian agertzen den Tolosaren kasua bezala. Leaburun, berriz, Saharako Guelta herriarekin anaikidetza sendotzeko aprobetxatu zuten Aberri Eguna. HITZA

**JOSEBA AGIRREZABALA ▸** TXIRRINDULARIA

# «Profesionaletan aritzeko aukera hau aprobetxatu nahi dudala garbi daukat»

### Abenduan bizikleta uzteko erabakia hartua bazuen ere, Joseba Agirrezabala txirrindulari anoetarra Andalucia-Paul Versan talde profesionalak fitxatu du aurten

IMANOL GARCIA

Hogeita hiru urte beteko ditu hil honetan Joseba Agirrezabala txirrindulari anoetarrak. Aurreko abenduan bizikleta uzteko zorian egon zen, baina azken momentuan Andalucia-Paul Versan talde sortu berriaren eskaintza jaso zuen, urtebeterako. Fitxa egiterakoan izandako egutegi arazoengatik ezin izan du oraindik debuta egin profesionaletan. Ekaina ondoren etorriko zaio aukera anoetarrari.

**Nola ematen da txirrindularitza profesionalean sartzea eta ikasketekin jarraitzea?**
Beste erritmo batean aritzen naiz ikasten, baina ikasketak uzteko asmorik ez dut, hori ziur daukat. Txirrindularitzan gutxi batzuk izaten dute aukera hemendik bizia egiteko. Gero, zorte pixka bat izanez gero eta ondo joanez gero, urte batzuetan bizitzea badaukazu. Noski, hori guztia zortea izanez gero, gertatu baitaiteke bi urtetan aritu eta gero aukera ez izatea jarraitzeko. Horregatik, orain egoera aprobetxatu, baina hori bukatzean, zerbaiti heldu beharra dago.

**Zein mailatan dago Andalucia-Paul Versan?**
Maila kontinentalean dago; hirugarren mailan, nolabait esateko. Taldea aurten sortutako proiektu berri bat da eta datorren urterako mailaz igotzea du helburu. Atzetik Andaluziako komunitatea du eta horrelako babesle bat izateak egonkortasuna ematen du beti.

**Oraindik ez duzu parte hartu lasterketa profesional batean, fitxa egiterakoan data arazo batzuk medio. Nola izan da hori?**
Aurten txirrindularitzan egitura guztia berritu egin da. Maila ezberdinak sortu dira eta Espainiako Federazioan egutegia egiterakoan ez dira ondo finkatu gauzak. Horrela, lehen urte guztian fitxatzea zegoen bezalaxe, aurten bi epe jarri dituzte, bat urtarrilan eta bestea ekainean. Lehenengo epe horretan ez zen tramitatu ondo nire lizentzia eta, horregatik, ekaina arte itxaron behar dut profesionaletan debutatzeko.

**Orain ez zaude geldi, ezta?**
Berez geldi egon behar nuen, lizentzia ez dudalako. Baina taldetik esan zidaten geldirik egon beharrean afizionatuetan aritzea hobe zela, behintzat erritmoa ez galtzeko. Afizionatuetan ere talde sortu berria daukate; lehen mailara igo nahi dute, eta horretarako puntu batzuk lortu behar dira. Eta horrela aprobetxatu nahi dute ea puntu batzuk ematen dizkioten taldeari.

**Aurten espero zenuen talde profesional batek fitxatzea?**
Aurreko urtean belaunarengatik pixka bat baldintzatuta egon nintzen. Belauna ondo zegoenean, emaitza on batzuk atera nituen. Urte bukaeran neukan sentsazioa egin beharrekoak nolabait egin nituela. Ez baneukan aukerarik profesionaletara salto egiteko, uzteko asmoa neukan. Eta abenduan, egia esan, bizikleta utzi nuen eta ikasketetan zentratu nintzen. Talde berri honek urte hasieran deitu zidan eta urtarrilaren 14ean sinatu nuen. Eta orduan ilusioa piztu zitzaidan berriro.

**Beraz, abenduan, prest zinen bizikleta alboan uzteko?**
Afizionatuetan lau urte egin ditut eta uste dut denbora horretan progresioa mantendu dudala. Azkenengo urtean, gainera, belaunak utzi didan neurrian, uste dut lasterketa ga-

IRITZIA ▸ MANU LEUNDA (GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAKO KIDEA )

# Gure balorazioa mahai-inguruaz

Ezer baino lehen, gure deialdiari erantzunez Tolosako udaletxeko batzar aretoa bete zuen jendeari eskerrak eman nahi dizkiogu, Gerontologikoaren gaiaz orain arte gure udalbatzak eman dituen azalpenek eta konponbideek, guri bezala, argitu nahi zituzten zalantza asko uzten zizkietela adieraziz horrela.

Guretzat mahai-ingurua izan zenaren balorazio laburtua egingo dugu. Norbaitek osatu nahi badu, hurrengo egunetan antolatzeko asmoa dugun hitzaldietan egin dezake.

- Aurkeztutako bideoan ikusi ahal izan zenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak kendu diguna, eta gure udalbatzak defendatzen jakin ez duena, hirugarren adinaren negozioari hozkada emateko txanpinoi gisa sortzen ari diren egoitza horietako bat baino zerbait gehiago zen: benetako bitxia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ongizate zerbitzuaren bandera-ontzia zen kalitatea kontuan hartzen zutenean, eta ez bakarrik egun/ohe prezioa, gaur egun bezala.

- Gerontologiko honek ematen zituen zerbitzu ugarien egoiliar, senitarteko, langile eta erabiltzaileen sentimendua udalbatzarekiko erabateko utzikeriarena izan da.

- Eskuartetik patata beroa kenduz, Aldundiak Donostiako Sanitasera bidali eta astebete barru, Tolosako egoitz batean plazaren bat libre gelditzen bada, hona itzultzen dituen egoiliarrak maletak bezala tratatzeari senitartekoek emandako ezezkoaren ondoren bakarrik hasi da Udala mugitzen.

- Gertaera kontsumatuko egoera honetan egoteko giltzarria itxieraren erabakia ezkutatzea izan da. Herriari orokorrean ezkutatzea eta Udaleko alderdi batzuei ezkutatzea. Baina jokaldiaz Tolosako Udalan inor informatua ez izatea, sinesgarria iruditzen al zaizue? Guri ere ez.

- Zentroaren defentsa eskasa eta okerra izan da beste pieza garrantzitsua (ezintasunagatik edo boluntarioki?). Mahai-inguruan azaldu bezala, Aldundiaren mende dagoen egoitza mantentzea lortu du Eibarrek, Tolosa baino gutxiago defenditu daitekeen egoera batean. Mahai-inguruan esan bezala, zerikusirik izango ote du diputatua eta herri horretako alkatea alderdi berekoak ez izateak?

- Eta zer esan herritarrak desmobilizatzeko saiakuntzez, deitutako manifestazioaren bezperan —arriskuan jarriz, behar handia izanez gero bakarrik bidaiatzeko gomendatzen zuten elurte haiekin batera izan zelako— diputatuaren eta alkate jaunaren prentsaurrekoa eginez honek «akordio oso egokira iritsi zela eta oso pozik zegoela» esateko? Dirudienez, arazo bakarra berarentzat egoiliarrak Tolosan gelditzea zen, eta hori arazoaren zati bat bakarrik da —garrantzitsua, baina bakarra—.

- Konpontzeko orain gelditzen zaigun arazoa —gure bitxia defendatzea lortzeko gaitasunik edo interesik ez dutenez izan— gauden azpieskualde honetan 2010erako Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera dauden beharren aurreikuspenei erantzun egokia eta kalitatekoa nola ematea da —2005ekoak ez ditugu jada betetzen: une honetan dagoen eskaintza baino 50 plaza gehiagoko eskaera dago—. Behar hauek betetzeko falta dira: 49 plaza eguneko zentroetan, asteburuetako 61 plaza eguneko zentroetan, etxebizitza tutelatuetan 37 plaza eta, gutxienez, 75 plaza egoitzetan —eskatzaileen heren bat ia—, aurretik aipatutako plazak ez badira eskaintzen jendeak —bere egoera familiarrari irtenbide duina emateko bitartekorik ez izatean— adineko pertsona etxean mantendu beharrean egoitza batean ingresatzea lagunduko du, egoitzetako plazen beharra handituz.

- Ikus dezakegunez, izan behar ditugun beharren zati garrantzitsua betetzen zuen —baina Aldundiaren diru kutxaren mende zegoen— zentroa ixtea eta orain ahalik eta irtenbiderik duinena ematea —horretarako zein diru kutxatara jo beharko da?— benetako erokeria da.

- Udalbatzako jaun-andreak: lanean has zaitezte eta orain arte baino argiago froga iezaguzue defendatzen ari zareten interesak okupatzen duzuen arduretan jar zintuztenen interesak direla. Laster berriro deituko zaituztegu planteatuta daukagun arazoari udalbatzaren osotasunetik —alderdien interesak ahaztuz— eman behar diozuen behin-betiko konponbidea azal diezaiezuen herritarrei.

Bitartean, Gerontologikoaren aldeko plataformak astelehenero 19:00etan Kultur Etxean biltzen jarraitzen duela eta herritar guztiak bertara joateko gonbidatzen dituela gogorarazi nahi dugu.


IMANOL GARCIA

## PERTSONALKI ▸

▸ Anoetan jaioa ▸ 1982ko apirilaren 22an ▸ Goi Ingeniaritzako ikasketak burutzen ari da ▸ Andalucia-Paul Versan taldeak fitxatu du aurten ▸ Ekainaren ondoren egingo du debuta profesionaletan

**Definitu txirrindulari bezala.** Forman nagoenean, mendian eta kronoeskaladetan ondo aritzen naiz. **Gogoko txirrindularirik?** Txirrindulari langile oro, bere sakrifikatzeko ahalmenagatik. **Txirrindularitzaz aparte, beste afiziorik?** Mendira joatea.

## TALDEA

«Andalucia Paul-Versan aurten sortutako proiektu berri bat da eta datorren urterako mailaz igotzea du helburu»



rrantzitsuak irabazi nituela. Horrek pentsarazi egiten dizu: aukerarik ez bazen sortzen, uzteko asmoa neukan, bizitzako beste arlo batzuetan zentratu. Ikasketaz aparte, gehiago disfrutatu orain arte egin ez ditudanak: lagunekin gehiago atera, mendira joan... Beste *txip* batekin.

**Eta Andalucia Paul-Versanen deia etorri zenean, gogoa piztu zitzaizun berriro...**

Sorpresa handia izan zen, bizikleta utzita neukalako. Noski, beraiek ez zekiten hori.

**Eta zer asmo duzu aurtengo denboraldirako?**

Profesionaletan aurten hasi behar dudanez, ezin diot ezer eskatu neure buruari. Baina, behintzat zerbait erakutsi nahi nuke. Gainera, taldean Ion del Rio tolosarra eta Gorka Beloki gasteiztarra izanda, ondo etorriko zait beraien esperientzia. Ionek bigarren urtea eta Gorkak laugarrena dute profesionaletan.

iragarki laburrak ▸

ALOKAIRUAK
**Ibarra-Tolosa.** Familia batek etxebizitza alokatuko luke. Deitu 685 76 11 22 telefonora.

BIDAIAK ▸

# Dragoiaren bederatzi mingainak

## Mekong ibaiari jarraitzen hiru hilabetez ibili ondoren, iritsi gara ibai ahora; azken hilabete honetan Laosen, Kanputxean eta Vietnamen ibili gara eta deltara heldu

**MEKONG IBAIA**

Laos eta Myanmar herrialdeen artean dagoen Xieng Kok herri txikian hartu ahal izan genuen lehen aldiz

**AMAIERA**

Gizakiaren eta uraren arteko elkarbizitzaren irudi nagusia da Mekong ibaiaren delta! Gure lehen proiektua



Paisaien edertasunaz gozatzeko aukeraz gain, ibai ertzean bizi direnen abegikortasunaz gozatzeko aukera eman die Mekong ibaiak. FABIOLA JUBIN

ANGEL CUERDO

Dragoiaren bederatzi mingainak deituriko delta zabala izan da gure amaiera gozoa. Tailandia, Myanmar eta Txinatik barrena bi hilabetez ibili ondoren,txinatar urte berriarekin batera sartu ginen Laosen. Herrialde berriaren ongietorria ezin hobea izan zen; Laosen bizi ahal izan genituen egun desberdinetan festak amaierarik ez zuela zirudien!

Lehenik Lantan tribuko jendearen urte berria ezagutu ahal izan genuen. Motxila sorbaldan hartu eta herri txiki desberdinak aztertzen ari ginela, Lantan etniako jendea bizi zen herrixka batetara iritsi ginen. Berehala piztu zitzaizkigun begiak gure aurrean genuen kolore nahasketa ikustean; banbu eta lastoarekin egindako txabolak eta modu berezian jantzitako emakumeak.

Txabola nagusira iristean musika entzun genuen, bazegoen bertan festa giroa, eta, zorionez, etxe barrura sartzera gonbidatu gintuzten. Lehen solairuan emakumeak ziren janariak prestatzen eta bigarren solairuan gizonezkoak, lurrean eserita, palmondo hostoekin egindako mahai baten inguruan. Jateko ugari bazegoen ere festaren ardatza, *lao-lao*, arrozarekin egindako edari alkoholduna, eta, batez ere, nonbaitetik lortua zuten karaokea.

Beren tribuaren urte berria ospatzen ari ziren otsailaren 10ean, eta halaxe, *Sabadi pi mai*!, urte berri on esanaz eta *lao-lao* eskaintzak bata eta bestearengatik jaso ondoren, erdi balantzaka utzi genuen horren modu atseginean jaso gintuen herrixka. Barre egiten genuen konturatzean, gure urte berria, Tailandiakoa, Txinakoa eta Lantan tribukoarekin batera, laugarrenez ospatzen genuela urte berriaren sarrera.

Baina guretzat jaiak hasi besterik ez zuen egin; hurrengo egunean ezkontza batetara gonbidatu gintuzten. Hiru eguneko ospakizuna zen eta bertan zeuden bilduak herriko gehienak. Famili aberatsa izanik bi behi eta bi bufalo hil zituzten ospakizunerako, ehunka litro *lao-lao* prestatu eta musika talde bat ere bazegoen bertan. Ezinbesteko *lao-lao* edariak berotuta eta gonbidatuen borondateari amen eginez, gu ere hantxe jarri ginen dantzan, Laoseko dantza mota ahal genuen moduan jarraituz.

Herriko festa batzuetara ere iritsi ginen eta benetan harritu gintuen plazan dantza egiteko sistemak. Abestiak bukatu baino lehen denek korrika alde egiten zuten beren eserlekuetara, plaza hutsik utzirik. Ondoren abeslariak zerrenda bateko izena aipatuz neska bat ateratzen zen plaza erdira eta hantxe egon beharra zeukan mutilen bat berarekin dantza egitera ausartu bitarte. Orduan hasten zen berriro musika eta atera zitekeen dantza egitera, berriro ere prozesu guztia errepikatuz abestia bukatutakoan. Gure aulkien jokoaren sistema bera zen, baina helburu nagusia bikoteak egitea izanik.

Laos iparraldea gune menditsua izateaz gain, Txina, Myanmar eta Tailandia arteko muga puntua ere bada. Ingurune guzti horri *Urrezko triangelua* deitzen zaio eta bertan ematen da munduko opio produkziorik handienetakoa. Arrazoi horiengatik guztiengatik, lurraldea isolaturik egon da urtetan eta horrek bertoko etnia desberdinen tradizioak garbi mantentzera lagundu du. Akha, Hmong, Lantan, Tai-dai eta beste hainbat gizatalde desberdinen bizigunea da; trinko mantentzen dituzte beren ohiturak eta kultur aberastasuna. Merkatuak eta herrixkak eguneroko inauteri antzeko kolore eta erritmo nahasketa alaia duten toki magikoak dira.

Gure motxila hartu eta herri txiki baino aberats hauen azterketan geundela, mendi punta batean zegoen Akha etniako herrixkara iritsi ginen. Gogotik izerditu behar izan genuen paradisuzko toki hartara iristeko, baina merezi izan zuen saiakerak. Elektrizitate,auto, telefono edo beste modernotasun guztiak urrun geratzen ziren eta bertan gizatasunak bere indarra berreskuratzen zuen. Gaztetxoen artean sortu genuen ikusmina ikusirik, etxetik ekarritako eskupilota hartu eta umeekin jolasteari ekin genion, tokiari zegozkion arazoei irudimen pixka bat ipiniz. Alde batetik ez zegoen frontoirik, noski, eta bestetik pilotak alde egiten zuen bakoitzean korrika maldan behera joan behar izaten genuen pilota berreskuratzeko. Arazoak arazo, umeekin sortzen den jolas giro alaiarekin, han ibili ginen jokoak asmatzen eta ederki pasatzen.

Gauean, lotarako prest geundela, emakumeak sartu ziren gure txabolan, eta ohiturei jarraituz, Akha masaje berezia eskaini behar zigutela esan ziguten. Herriko bilgune bihurtu zen txabola une hartan, kandela pare batek eskaintzen zuen argitasunean, jendearen kontuak eta sortzen ziren barreak entzuten genituen. Gazteek helduen istorioak entzun eta beraien esperientzietatik ikasten zuten; telebista ezak ematen duen ahozko kulturaren aberastasuna genuen aurrean.

### Mekong ibaia jarraituz

Laos eta Myanmar herrialdeen artean dagoen Xieng Kok herri txikian hartu ahal izan genuen lehen aldiz Mekong ibaia. Amildegien artean bidea irekitzen zuen urek eta bertan sortzen ziren ur korronte azkarrei irabazteko modu bakarra barku txiki, baina, azkar batzuk ziren.

Eta bai azkarrak gertatu ere! Port Aventuran dagoen *Dragon Khan*-ek ez dut uste txalupa txiki horrek baino zirrara handiagorik sortzen duenik. Are gehiago, kontutan hartuta txalupa Mekong ibaiaren zati hori igarotzeko ibilgailu arrunta dela izan. Zurrunbilo eta arroken artean, askotan pentsatu izan genuen geureak egin zuela!

Aurreko larrialdiak pasatu ondoren, Mekong ibaiaren hurrengo pausoak untzi motel eta lasaietan jarraitzea erabaki genuen. Barkuaren sabaitik ibaia ertzeko bizitza aztertzeko aukera ezin hobea genuen: arrantzaleak modu desberdinak erabiltzen arrain preziatua lortu ahal izateko, emakumeak arropak eta ontziak garbitzen, umeak jolasean, bufaloak bainu lasaigarriak hartzen, lastoz egindako herrixkak edo itxura desberdineko txalupa txikiak... Hauek, Mekong ibaiak eskain-

**hilberriak** ▸ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▸ 687 53 02 58 ▸ tolosaldean@tolosaldekohitza.info



Xegunda
Aizpurua Kalparsoro

Gure bihotzean
beti izango zaitugu

**Bilobek eta birlobek**

**ALTZO**, 2005eko apirilaren 3a







## HIRUGARREN ETAPA








tzen dituen ehunka irudi desberdinetako gutxi batzuk besterik ez ziren.

Vientiane eta Luang Prabang, Laoseko hiriburu eta bigarren hiririk handienak, Mekong ibaiaren babesa jasotzen duten herri itxurako hiriak dira. Oihanari bere tokia irabazten dioten etxe baxuak, tartean agertzen diren ehunka tenplu budistak eta kale lasaietan jendeak lasaitasuna aurkitzen du; Mekong, ama ibaiak ematen dien segurtasun eta aberastasunarekin ziur sentituz.

Autobusa, bizikleta, motoa, moto taxiak eta barku desberdinak hartu ondoren, Champasak herrira iritsi ginen zorioneko egun batean: urteko bigarren ilbetean. Eta nola ez, Laoseko gure festetarako erakargarritasun berarekin jarraituz, Wat Pu antzinako tenplurako urteko erromesaldi garaian iritsi ginen. Ehunka monje budista eta erromes biltzen zen tenpluaren inguruan ilargi betearen babesean, jainkoei errezo eta eskaintzak bideratzeko.

Gure festetan gertatzen den antzera, honakoan ere, erlijioa eta jaia bat eginik zeuden: behartsuak, mota eta itxura guztietako erromesak, fruta eta janari saltzaileak, abeslariak, dantzariak, oilar borroka apustuak, Tailandiako boxeolarien txapelketak edo bi gaztek korrika eginez birarazten zuten gurpil handia...

### Angkor tenpluak

Laos eta Kanputxea arteko mugan, Mekong ibaiaren ibilbide lasaia apurtu egiten da 4.000 irla eta urjauzitan. Lurralde lasai eta magiaz beteriko honetan naturak bere indarra eta boterea agertzen du gauza guztien gainetik. Animaliek hartzen dute agintea lurralde hauetan eta denen errege Iyerawadi izeneko delfinak dira. Delfin jolasti eta bufalo lasaien artean bainatuz gure eguneroko mundu horretatik alde egin eta pentsamenduak gure erraietara eramaten gintuen, inongo modernotasunik gabeko bizitzaren sorrerara.

Mekong ibaiaren adarra den Tonle Sap lakuaren ertzean kokatua, Angkorreko tenpluak boteretsu agertzen dira oihanaren eta bere izatearen arteko etengabeko borrokan. Bertan ikus daiteke Khemerek X. mendean agertu zuten eraikitzeko boterea, eta ingurunean agertzen diren eskale elbarrituak ikusita; baita ere, XX. mendean Khemer Gorriek eragindako bizitzaren suntsiketa. Hala eta guztiz ere, munduan dagoen tenplu ingurune handienak badu edonor erakartzen duen botere berezia. Phon Pemh, Kanputxeako hiriburua alde batera utzi eta Mekong ibaiaren deltan barneratzen ginen, garai batean Kanboiako lurrak eta egun, Vietnameko gerrateaz geroztik, hari dagozkionak.

Bizitzaz beteriko kanal sarea da, herri osoak zeuden ur gainean, eta, noski, herri arrunt bati dagozkion gasolindegi, supermerkatu, merkatu eta eskolak barne. Apenas errepide gabeko lurraldea, bertan mota guztietako txalupak ziren ibilgailu ezinbestekoak; arraro egiten zen gazteak txalupa hartu eta eskolarako bidean arraun egiten ikustea. Gizakiaren eta uraren arteko elkarbizitzaren irudi nagusia da Mekong ibaiaren delta! Gure lehen proiektuaren amaiera zen hura eta Mekong ibaia penaz agurtzen bagenuen ere, oraingo honetan tristura ez zen osoa: Hego Amerika eta Che Guevarak bertan motoarekin egindako bidaia zain genituen.

AZOKA

## Udaberriak askotariko eskaintza ekarri du

Baratxuriak, tipulinak, indioilarrak, ahateak eta apaingarri landare berriak sartu dira

PABLO ALBERDI

Udaberriak berritasun ugari ekarri ditu Tolosako azokara. Barazkien artean, lehenengo baratxuriak eta tipulinak orain dela aste pare bat hasi ziren, eta atzo, ia mahai guztietan ikusi genituen. Abere postuetan berrikuntzak ere izan ziren. Atzo indioilarrak eta ahateak aurkeztu zituzten, eta datorren astean antzarrak eta pintadak ikusiko ditugu ziurrenez.

Berdura plazan apaingarriko landareen eskaintza gero eta zabalagoa da. Aste honetan *rhododendron*-a eta *alsyssum*-a aurkeztu dituzte. Aipatzekoa da Atadi kaleko zuhaitzen eskaintza. Aurten inoiz baino gehiago irauten ari da eta dagoen aukera oraindik ere benetan izugarria da; fruitarbol eta baso espezie asko daude.

ATZOKO AZOKA

| Berdura plaza | merk. | gares. |
|---|---|---|
| Pinu Insignis | 0,17 | - |
| Abeto Douglas | 0,33 | - |
| Lilia | 1,20 | - |
| Begonia | 1,00 | 1,30 |
| Azalea | 5,50 | 10,00 |
| Lekak | 0,35 | 0,40 |

| Bertako produktuak | | |
|---|---|---|
| Indioilarra | 4,30 | - |
| Ahatea | 2,50 | - |
| Ziazerba | 1,00 | - |
| Tomatea | 3,00 | 4,50 |
| Patata | 0,66 | 1,00 |
| Baratxuria | 1,00 | - |

| Produktu ekologikoak | | |
|---|---|---|
| Intxaurra | 4,00 | 6,00 |
| Sagarra | 2,00 | 3,00 |
| Kalabaza | 1,60 | 3,04 |
| Arroza | 1,90 | 2,00 |
| Arraultzak | 3,50 | - |

EAE-KO HAUTESKUNDEAK

# Eskubide politiko eta zibilak errespetatzea eskatu du Batasunak

Euskal Herriarentzat eszenatoki berria sortzekotan, «botoz indartu behar da hauteskundeotan» alderdi politiko hori




Tolosako Belate auzotik abiatuta manifestaldia egin zuten eskubide zibil eta politikoen alde. I. GARCIA

IRATXE ETXEBESTE
IMANOL GARCIA

Legez kanpo egonagatik, Tolosaldeko Batasunak hauteskunde kanpaina jarri zuen abian ostiralean gainerako alderdi politikoek bezala. Ostiral iluntzean akanpada hasi zuten Anoetan —guztira, zortzi bat dendatan— eta atzo eguerdian eman zuten ekimena bukatutzat. 12:15ean abiatu ziren plazatik Tolosa aldera giza-katea eginez. Errepide bazterretik egin zuten giza-katea; atzetik zuten bozgoragailuetatik Espaniako Auzitegi Konstituzionalak hartutako neurria salatzen zuen autoa. Ikurrinak eta AHTren kontrako banderolak zituztela, «Oztopo guztien gainetik, Batasuna», «orain herria orain bakea», «ilegalizaziorik ez», eta antzerakoak aldarrikatu zituzten 30 bat lagunek.

Belate auzoan zain zituztenek bat egin zuten protesta ekintzarekin giza-katea bertara heldu zenean, eta handik aurrera manifestazio itxura hartu zuen mobilizazioak. *Eskubide zibil eta politikoen alde, ilegalizaziorik ez!* zioen pankartaren atzean egin zuten Trianguloraino ko bidea, eta San Frantzisko pasealekutik Triangulo plazara joan ziren berriro. Dozenaka lagun elkartu ziren bukaeran.

Lehenik eta behin, eskerrak eman zizkieten antolatzaileek hitzordura bildutako guztiei, eta datozen egunetan izango diren mobilizioetan parte hartzeko deia egin zuten, «deialdi bakoitzean zuen atxikimendua behar dugulako»: «Batasunaren eta Aukera Guztiak-en legez kanporatzearen aurrean denok erantzun beharra dugu, eta neurri horri erantzuteko mezuak 'oztopo guztien gainetik, ilegalizazioaren kontra' izan behar du».

Ezker abertzaleko kideen hitzetan, Batasuna «indartu» egin behar da hauteskundeotan, «Euskal Herriarentzako eszenatoki berri bat sortu behar bada, Batasuna boto aldetik indartzea ezinbestekoa delako». Bada horixe, hilaren 17an botoa emateak «garrantzi handia» duela esanez bukatu zuten ekimena, ohiko moduan, *Eusko gudariak* kantatuz.



## Ezker Batukoak, herritarren botu eske

HAUTESKUNDEAK ▸ Atzo hasi ziren herriz herri alderdi politikoak botoak eskatzen. Ezker Batuko Antton Karrera tolosarra hainbat kiderekin Zerkausi ondotik igarotzen zen orori Bernardo Atxagaren irudia duen eta *Nire aukera, hemengo ezkerra* leloa daraman mezua zabaltzen aritu zen goizean —argazkian—. Gauza bera egin zuten baita ere PSE-EEkoek. Trianguloan jarri, eta mezua zabaltzeaz gain, loretxoa eman zieten gerturatutakoei. I.TERRADILLOS

iragarki laburrak

**Laguntzaile administratiboak.** Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.
**Haur Hezkuntza.** Gaztelerako 106 leku, euskarako 52. Doako informazioa. 943 43 41 27.
**Fisioterapeutak.** Laboratorioa, argizpi teknikoak, erizain laguntzailea. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.
**Sukaldeko laguntzaileak,** sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu: 943 43 41 27.
**Peoiak.** Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.
**Gidariak.** Hurrena sartzeko: udaletxeak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.
**Irakasleak.** 465 leku libre. Hurrengo deialdiak. Informazioa doan. Informatu: 943 43 41 27.
**Udaltzainak.** 25 leku libre udaletxeetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

EAE-KO HAUTESKUNDEAK

# Ibarretxe: «Hauteskundeotan boto uholdea behar dugu»

## Lehendakariaren hitzetan, «Madrileko itxikeriari ezetz esateko balioko duen indarra» izango da hori: «euskaldunok erabakiko dugu Euskadiren etorkizuna»

ERREDAKZIOA

«Boto uholdea behar dugu Madrilen itxikeriari ezetz esateko». Horixe adierazi zuten atzo EA-EAJ koalizioak Leidor zinema antzokian egin zuen ekitaldi politikoan hizlari aritu ziren Legebiltzarrerako hiru hautagaiek. EA-EAJ koalizioko Gipuzkoako zerrendaburu Unai Ziarretak eta Joseba Egibarrek jardun zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren aurretik, ia beteta zegoen Leidor aretoko entzuleen aurrean.

Bera buru den koalizioaren proiektua «negoziatzeko eta erabakitzeko» proiektua dela ziurtatuz, indartsu eta ilusioz beterik agertu zen Ibarretxe datozen hauteskundeei begira. «Euskadiren etorkizuna euskaldunok erabakiko dugu, hemen bizi eta lan egiten dugunok, eta ez beste inork», zioen lehendakarigaiak. Izan ere, «Eusko Legebiltzarraren gehiengoak onartutakoa negoziatzeari eta elkarrizketari ezetz esan diotenek, eta aukera politiko ezberdinak ilegalizatzearen alde agertu direnek» helburu bakarra dute bere ustetan: Eusko Legebiltzarrean gehiengo abertzalerik ez egotea. Haien ardura bakarra EA-EAJ koalizioak lortuko dituen botoak direla zioen, «euskal lehendakari bat Madrilgo Gorteetan Euskal Herriak erabakitzeko duen eskubidea defenditzen ikusi nahi ez dutelako».

EA-EAJ koalizioko Gipuzkoako zerrendaburu Joseba Egibarren hitzetan, «Estatutu politiko berria da Euskal Herria herri bezala garatzeko dugun tresnarik egokiena eta bakarra». Ildo beretik, Espainiako Parlamentuaren ezezkoak «sekula baino ageriago» utzten du jatorri historikodun arazo politiko bat dagoela, oraindik konpondu gabekoa, eta «irtenbide bakarra herri honen izaeraren errekonozimenduan datzala dio Egibarrek.

EAko Idazkari Nagusi eta Gipuzkoako Legebiltzarrerako hautagai Unai Ziarretak eman zion hasiera ekitaldiari, PP-PSOEk osatzen duten taldearen aurrean, «ezinbestean, gure koalizioak gehiengo nagusia lortu behar» duela esanez: «Ez baitago beste erdibideko aukerarik». Ziarretaren iritziz, EA-EAJ koalizioarentzat ez diren botoak «boto abertzaleak galtzea» suposatzen du: «Eta aukera espainolistek irabaziko baligute, badakigu zer suposatuko lukeen horrek».

EA-EAJ koalizioko Gipuzkoako hautetsiek irten zuten ekitaldi amaieran taula gainera, bertan zirenen txalo zaparra jasoz. Ekitaldia hasteke zegoela, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta EA-EAJ koalizioko hautetsi Unai Ziarretak eta Joseba Egibarrek lagunduta egin zuen Juan Jose Ibarretxek Leidor zinemarako sarrera, herritarrak besarkatuz eta agurtuz.



Egibar, Ziarreta, Ibarretxe eta Bildarratz, Leidorrera sartzen. I.TERRADILLOS



EA-EAJ koalizioko hautetsiak, atzo, Leidorreko eszenatokian. I. GARCIA

IBARRA

### Argazkigintza ikastarorako izen-ematea

Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean 2004-05 ikasturterako eskaini diren tailerren artean Iñigo Royo argazkilari tolosarraren ardurapean Argazkigintza II- Sakonketa tailerra antolatu da. Lantegi honetan, besteak beste, argazkigintza digitala landuko da. Ikastaroa maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 14ra bitarte gauzatuko da honako egun eta ordutegietan: maiatzetik ekainera, astearte, asteazken eta ostiraletan, 18:30etik 21:00etara. Ikastaroaren prezioa 90,35 euro izanik, lantegian izena eman nahi dutenek, apirilaren 26a baino lehen Ibarrako kultur etxean edo 943 67 03 99 telefonora deituz egin dezakete.

IBARRA

### Udal sustapeneko etxebizitzetarako zerrendak

Ibarrako udaletxeko iragarki-taulan ikusgai daude Argindegi 18-20 zenbakietan eraikiko diren udal sustapeneko etxebizitzen zozketarako onartu eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrendak. Gai honen inguruan alegazioak aurkeztu nahi izanez gero, horretarako epea datorren apirilaren 6an bukatuko da.

BEGIRISTAIN
tolare sagardotegia
•Afariak:
astelehenetik larunbatera
•Bazkariak:
osteguna, ostirala eta larunbata
tel.: 943 65 28 37 / 607 36 57 43 • Iturriotz baserria 20267 Ikaztegieta

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

| IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA) | ORDUAK | HASIERA | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|
| Galdaragintza eta trazatuen garapena (LANTEC) | 60 | 2005-04-04 | 18 - 21 |
| TALDE-LANEKO harremanak (Enkargatuak-Arduradunak) | 40 | 2005-04-04 | 18 - 21 |
| PLC-SIEMENS Automata programatze aurreratua | 40 | 2005-04-06 | 18 - 21 |
| HIDRAULIKA sistema automatikoak | 30 | 2005-04-11 | 18 - 21 |
| CAD 3D Modelatu eta planoak (UNIGRAPHICS) | 30 | 2005-04-18 | 18 - 21 |
| Zizalla, Plegatze eta Puntzonatzea | 40 | 2005-05-03 | 18 - 21 |
| Mekanikako industrian Seguritatea | 40 | 2005-05-03 | 18 - 21 |

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 •20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

Villabona - Kultura
— HAUR ANTZERKIA —
DAR-DAR TALDEA
'Egizu lo, Tartalo'
antzezlana



Apirilak 3 igandea • arratsaldeko 17:00etan
GUREA ARETOAN
Udal Kultura Batzordea
Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

tolosaldeko eta leitzaldeko
# hitza
ARGITARATZAILEA: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA: SS-0398-03
ZUZENDARIA: Joxemi Saizar
EGOITZA: Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20400
TELEFONOA: 943 65 56 95 FAXA: 943 65 00 18
POSTA ELEK.: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA: www.tolosaldekohitza.info
TIRADA: 7.500 ale

BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko 77 gizarte eragile: (HITZAren enpresan parte hartzeko, deitu 943 65 56 95ra)

Harpidedunei banatua ▸ 2005eko apirilaren 3a, igandea ▸ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil besterik: Leitzaldeko Euskara Batzordea | Gipuzkoako Foru Aldundia | Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 18 hotzena 11 | BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...) 943 30 43 46

## AGENDA ▸

### DEIALDIAK

**Amezketa.** Josune Bereziartu eskalatzailearen *La mejor escaladora del mundo* izeneko hitzaldia. Bihar, 19:30ean, gela balioanitzean.
**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak bilerara deitu ditu garai desberdinetan taldean izan diren partaide guztiak 2007an beteko den 50. urteurrena prestatzeko. Bihar, 20:30ean, lokalean izango da batzarra.
**Tolosa.** Sukaldaritza tailerra Topaguneko lokalean, 16:30etik 20:30era. Euro bat ordaindu behar dute parte-hartzaileek.
**Tolosa.** Apirilaren 10ean 51ko kintoak elkartuko dira. 11:00etan meza San Frantzisko elizan hildako kintoen alde eta 14:00etan bazkaria Mendi-alde jatetxean. Izen-ematea 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi-alde jatetxea).
**Tolosaldea.** *Linguanet*, lan munduko euskara planen inguruko oinarrizko 50 orduko ikastaroa. 35 ordu Internet bidezko ikasgaietan gauzatuko dira eta gainontzeko 15ak aurrez aurreko tailer praktikoen bidez. Berria-ko harpidedunek %10eko beherapena matrikulazioan.
**Villabona.** Apirilaren 14rako Iratxera irteera antolatu du Biltoki jubilatu elkarteak 25 eurotan. Oparia izango da. Izen-ematea, Biltokin. Kuota ekaina arte ordain daiteke.

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** *Antrophozooformak*, Aitor Ruiz de Egiloren eskultura erakusketa ikus daiteke Aranburu Jauregian apirilaren 16a bitarte 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.
**Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren keramika lanak jarrita izango dira Saikin tabernan, hilaren amaiera arte.
**Tolosa.** Mikel Azpillaga pintoreak 2003 eta 2004 urteetan egindako pintura lanak erakutsiko ditu Aranburu Jauregian apirilaren 23a bitarte. Egunero ikus daiteke, 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.
**Tolosa.** Paco Tena pintore tolosarrak bere koadroak jarri ditu ikusgai Lanbroa tabernan. Hilaren amaiera arte.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40. Gimeno. Elbarren 52 (Leitza). 112.
**Bihar.** Olarreaga, J. Martin J. Iraola 10 (Tolosa) 943 67 24 38. Larraia. Elbarren 95 (Leitza) 112.

### HAUTESKUNDEAK

**Amezketa.** Ezker abertzalearen bilera, hauteskundeetarako lan taldea antolatzeko: 11:00etan, herriko plazan.
**Tolosa.** Batasunaren nazio mailako mitina. Bihar, 20:00etan, Trianguloan. Rafa Diez eta Karmele Aierbe ariko dira hizlari.

### KIROLAK

**Futbola**

▸ Ordizia-Tolosa (Gorengoen Maila. 11:30, Altamira).
▸ Legazpiko Gaztetxea-Intxurre (Lurraldekako 2. maila. Igoera fasea. 17:00, Legazpi).

**Futbol 7**

▸ Lanbroa Dickens-Pub Oasis (2. maila A. 11:00, Beasain 2).
▸ Amazkar taberna-Bar Shanti Kirolak (2. maila B. 12:30, Urnieta 2).

### ZERBEZA FESTA

**Alegia.** II. Zerbeza Festa dela-eta herri bazkaria antolatu dute Intxurre futbol taldekoek herriko frontoian, 14:00etan. Txartelak salgai daude 7 eurotan Jubilatuetan eta Ixkiña, Etxeberria eta Hilario Berri tabernetan.

### ZINEMA

**Tolosa.** Alejandro Amenabarren *Mar adentro* filma, 19:00etan, Bonberenean.
**Tolosa.** *Los chicos del coro.* Gaur, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema antzokian. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.



## Ziztu bizian Ernio azpiko errepidean

**BIDEGOIAN ▸** VI. Rallysprint Azpeitia-Ikasberri proba egin zuten atzo Azpeitia eta Bidegoianen arteko errepidean. 50 lagun inguruk hartu zuen parte Euskal Rallysprint eta Euskal Junior Rallysprint lasterketetarako puntuagarria den proban. Bidegoianen zuen helmuga eta bertaratu zirenek autoen motor indartsuen eta gurpilen hotsak entzun ahal izan zituzten. Amaieran Santi Artetxe markinarra gailendu zitzaion Ramon Apalantza errezildarrari, azkenengo erlojupekoan egindako denbora bikainari esker. I. TERRADILLOS

## ZORION AGURRAK ▸



URTE ASKOAN
**Zuriñe Iglesias.** Bihar, astelehena, 6 urte. Zure anaiaren, Eloyren eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
**Irati Urreta (Alegia).** Gaur 8 urte. Zorionak etxekoen, eta, bereziki, Izaroren partetik.



URTE ASKOAN
**Garazi Beloki Tobar (Alegia).** Gaur 2 urte. Amalur, Unai, Oihana eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
**Alex Goikoetxea.** Gaur 8 urte. Zorionak etxeko pilotari onenari.

HITZA, zorion agurren tartea
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea TOLOSA
Udaletxeko bulegoa LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

aspepelota.com
PILOTA PARTIDUAK
LASA III.a - ESAIN
(Eskuz Banakako Txapelketa)
Eugi - Apeztegia
Titin III.a - Nalda III.a
Otaegi - Arizmendi
Muruamendiaraz - Berna
Tolosako Beotibar pilotalekuan
Apirilak 4 astelehena
arratsaldeko 16:30ean

hitza
tolosaldea eta leitzaldea
Gehigarri berezia ▸ Igandea ▸ 2005-04-03 ▸ Testuak: Olaia Eskitxabel

# LEHEN JAUNARTZEAK



RICHARD

# BIGARREN SAKRAMENTUA

Bataioaren ondoren lehen jaunartzea da kristauek betetzen duten hurrengo sakramentua; zortzi eta bederatzi urteko haurrak egun horretarako prestaketak egiten ari dira egunotan

# FEDEAREN BIDEA ‘EREITEN’

**Lehen jaunartze egunerako prestatzeko lan ugari egiten dute boluntarioek katekesia eskoletan; besteak beste, haurrak fedearen bidean hezitzea eta Jesusen bizitzaren berri ematea dute helburu**



Villabonako haurrei jaunartzerako prestatzen eta katekesia ematen aritzen diren boluntarioen taldeko argazkia. HITZA

Lehen jaunartzea: Kristau elkartearen sarrera; batailoaren ondoren, fedearen eta erlijioaren ibilbidean kristauek pasatzen duten bigarren atea dela esan daiteke.

Ospakizuna egun batera mugatzen den arren, luzea da egun hori iritsi bitarteko ibilbidea. Lehen jaunartzea zortzi edota bederatzi urterekin egiten da; hala ere, hiru urte ematen dituzte haurrek katekesira joaten. Urte horietan guztietan, katekistak bereziki «haurrak fedean hezitzen eta Jesusen bizitza aztertzen» aritzen direla azaldu dute Villabonan lan horretan aritzen diren boluntarioek. Lan hori batzuetan «nahiko zaila» dela ere adierazi dute: «Batzuetan gauza abstraktuak azaldu behar zaizkie; hala nola, izpiritu santua zer den, Jesusen presentzia, maitasuna... eta batzuetan ez da erraza oraindik oso gaztetxoak direlako. Hala ere, beraien laguntzarekin, azkenean, gauzak azaltzeko bideak aurkitzen ditugu», azaldu du, esaterako, Ixiar Ormaetxea katekistak.

Eskolan, etxean... haurrak duen inguruneak, asko eragiten du katekesia ematerakoan. Villabonako kasuan, esaterako, «Ikastolan ikasten dutenek erlijioa ematen dutenez, gaia gehiago menperatzen dutela nabaritzen da», baieztatu dute.

Jaunartze eguna aipatzerakoan, haurren artean gehien errepikatzen den galdera formari dagokiona azaldu dute katekistek: «Formak duen zaporeaz behin eta berriro galdetzen dute eta hostia hartzeko momentu horrek jakinmin handia sortarazten diete».

Egunaren aurretik haurrak urduri egoten dira eguna iristeko irrikiz: «Ilusio handia izaten dute jaunartzea egiteko. Baina egunaren zentzua ez dute bere osotasunean ulertzen oso gazteak direlako», dio Maria Jesus Lusarreta katekistak. «Jaunartzea kristauen bidean dagoen beste inflexio puntu bat da; bidea ez da hor amaitzen», azaldu du Mila Eizagirre katekistak, ondoren ere fedearen bidean jarraitzeko aukera gogora ekarriz.

## Gehiengoak egiten du

Katekesira joan eta jauna hartzen dute Tolosaldeko eta Leitzaldeko haur gehienek. Batzuk, gurasoek edota aitonamonek esan dietelako,eta benetako nahia dutelako edo lagunek egin behar dutelako besteek. Arrazoiak arrazoi, gehienek katekesian ematen dute izena. Villabonan, adin horretako haur gehienak joango dira maiatzaren 8an elizara jaunartzea egitera. Guztira, 54.

Haurren parte-hartzea eta motibazioa bultzatu nahian, gaiak lantzeko moduak, teknikak... asko aldatu direla azaldu dute katekistek: «Lehen, buruz ikasten genituen otoitzak eta baita historia bera ere; orain, antzerkiaren, abestien... bidez haurrek ondo pasatuz ikastea bilatzen dugu».

Egindako lanak emaitza onak ematen dituela esan daiteke; izan ere, jaunartzea egin ondoren, hamabi urte ingurura bitarte, haur gehienek jarraitzen baitute katekesian. Ez da gauza bera gertatzen hurrengo urteetan: «Adinagatik, dituzten jarduera pilagatik... alde batera uzten dute erlijioa; katekesiko eskoletara eta mezetara joateari uzten diote gehienek», azaldu du Marga Arruabarrenak. Normalean, sendotza oso gutxik egiten dute, beraz.

Haurrek fedearen bidean jarraitzearen zeregin horretan, gurasoen papera ere garrantzitsua dela aipatu dute katekistek. Villabonan, jaunartzea egin aurreko urteetan familia katekesia egiten da; hilean behin katekistekin egoten dira haurrak eta bitartean gaiak etxean, gurasoekin, lantzen dituzte. «Gurasoen inplikazioa» bultzatzeko oso garrantzitsua dela aipatu dute. Eta, gauza bera gertatzen da katekisten erreleboarekin ere: «Oso gutxi daude prest boluntario gisa haurrei katekesia emateko. Jendea oso eroso bizi da».

«Egun, fedea aparkatuta dago; soilik ospakizunen irudiek jarraitzen dute bizirik: bataioak, jaunartzeak, ezkontzak eta hiletak», dio Lusarretak.

Fedean hezitzen jarraituko dute, etorkizunean, ereindako fruituaren emaitza ikusteko ilusioz .

TXINTXARRI Jatetxea
TEL.: 943 65 07 21
ALEGIA

PLAZA ETXEBERRI
Jatetxea
Tel.: 943 69 19 36
ZIZURKIL

IRIARTE
JATETXEA
BERROBI
JAUNARTZEAK
FAMILIARTEKO EZKONTZAK
(70 pertsonentzat)
MENU BEREZIAK
FAMILIARTEKO BAZKARIAK
Etorri aurrekontua eskatzera konpromezurik gabe
Erreserbak • 943 683 078

KARMELE
• Ileapaindegia • Ilegaiak • Osagaiak
San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

Zarate bidea • Zizurkil
Tel.: 943693983
Faxa: 943690940
abeletxesl@telefonica.net

**DATAK ▸**

Maiatzan izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetako lehen jaunartzeak. Apirilean eta ekainean ere izango dira bat edo beste. Hona hemen herrika haurrek lehen jaunartzea egingo duten data zehatzak:

**Abaltzisketa.** Maiatzaren 8an.
**Aduna.** Maiatzaren 22an.
**Albiztur.** Ez dago aurten. Santa Marinan ez dago.
**Alegia.** Maiatzaren 22an.
**Alkiza.** Ez dago.
**Altzo.** Maiatzaren 15ean.
**Amezketa.** Maiatzaren 29an. Ugarten maiatzaren 22an.
**Anoeta.** Maiatzaren 15ean.
**Areso.** Maiatzaren 29an.
**Asteasu.** Maiatzaren 29an.
**Baliarrain.** Ekainaren 5ean.
**Belauntza.** Ez dago.
**Berastegi.** Maiatzaren 22an. Elduan ez dago.
**Berrobi.** Maiatzaren 29an.
**Bidegoian.** Bidanian apirilaren 24ean eta Goiatzen ez dago.
**Elduain.** Ez dago.
**Gaztelu.** Ez dago.
**Hernialde.** Ez dago.
**Ibarra.** Maitzaren 8an.
**Ikaztegieta.** Maiatzaren 1ean.
**Irura.** Maitzaren 1ean.
**Larraul.** Ez dago.
**Leaburu.** Ez dago.
**Leitza.** Maiatzaren 29an.
**Lizartza.** Maitzaren 29an.
**Orendain.** Ez dago.
**Orexa.** Ez dago.
**Tolosa.** Santa Marian maiatzaren 8an; Korpus Kristin maiatzaren 15ean; San Frantziskon maiatzaren 22an; Amarotzen maiatzaren 15ean; Bedaion ez dago.
**Villabona.** Maiatzaren 8an. Amasan ez dago.
**Zizurkil.** Elbarrenan maiatzaren 8an; San Millanen maiatzaren 29an.



# OSPAKIZUNAREN BESTE OSAGAIAK

**Lehen jaunartzea egin ondoren, mahaiaren inguruan bildu ohi dira haurren familiak; batzuk elkarteetan edo etxeetan biltzen dira, gehienak, berriz, jatetxeetan**



Ohikoa izaten da jaunartzearen ondoren taldeko argazkia ateratzea, 1.959ko argazki honetan bezala. HITZA

Lehen jaunartze egunerako egin beharreko zereginen zerrenda luzea izan ohi da. Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan jaunartzea tunikarekin egiteko ohitura aspaldi gelditu zen indargabetuta; hori dela-eta haur bakoitzak bere jantzia lortu behar du. Soinekoa, zapatak, marinelaren jantzia...

Lehen jaunartzearen ondoren, bazkaltzen biltzen dira eguneko protagonista izan direnen familiak. Oso gutxi izaten dira etxean bazkaltzen dutenak; gehienak, jatetxeetan hitzordua lotuta izaten dute: «Askok urte bete lehenago hartzen dute lekua; gero, lehen jaunartzearen data zehatza jakiten dutenean, hilabete eta erdi lehenago edo menua zehaztera etortzen dira», azaldu du Altzoko Arandia jatetxeko Maixabel Arandiak.

Mahaiaren bueltan biltzen diren senitartekoen kopuruak ere gora egin du azken urteetan: «Gehienak 40 lagun inguruko bazkariak izaten dira», dio Daniel Leite Txintxarri jatetxeko sukaldariak.

Bi jatetxeetako nagusiak bat etorri dira jaunartzeetako bazkarietan «menu tradizionalak» eskatzen dituztela baieztatzerakoan. Gehienetan, sarrerak (fritoak, entsalada epelak, urdaiazpikoa...) eta ondoren arraia edo haragia (eta batzuetan biak) eskatzen omen dute. Bazkaria, «jaunartzearen irudia duen tartarekin amaitzen dute», dio Arandiak. Jaunartzeen ospakizuna ezkontzen tankera hartzen ari dela azaldu dute biek: «Tarta haurrek moztu eta banatzen dute ezkontzetan bezala; horretaz gain, haur askok opariak banatzen dituzte gonbidatuen artean», azaldu du Arandia jatetxeko arduradunak.

Musikak ere izaten du lekua lehen jaunartze eguneko festan: «Batzuetan jaunartzea egin duen senitartekoren batek jotzen du eskusoinua, baina taldeak ez dira kontratatzen», dio Leitek. Hori ere iritsiko dela deritzo.

## Oparia haurrentzat

Askoren ahotan entzuten da haurrek lehen jaunartzean eskuratzen duten opariarengatik egiten dutela. Hori horrela izan edo ez, jaunartzea egiten duten gehienek izaten dute opariren bat edo beste.

Jaunartzeko oparia erostera bitxidendara jotzen dute askok: «askotariko erlojuak oso ondo saltzen dira», azaldu du Cid bitxidendako Marisol Cidek. Horretaz gain, «neskei urrezko pultsera, seilua, katea eta irudi erlijiosoak dituzten dominak oparitzen dizkiete gehien; mutilei berriz, kateak eta gurutze formako dominak».

Oparia erostera askotan haurrekin joaten dira; argienek «disimulo handiz erakusleihoan zein opari nahi duten adierazgen dute», dio Cidek.

Iturri-Ondo
Ohizko Sukaldaritza, Karta, Menuak,...
Tel.. 943 69 13 31 ASTEASU

RICHARD
ARGAZKILARIAK

Joseba

AINHOA ILEAPAINDEGIA
ZURE ILEAPAINDEGIA BILLABONAN
Tel.: 943 69 34 21 • Mugi.: 629 349 624
Etxe-ondo auzoa 7 • BILLABONA

OSTATU JATETXEA ITZIAR ETA AMAIA
• Eguneko Menua
• Plater Konbinatuak
• Asteburuko menuak 18-26 €
• Karta
Alkizako plaza • ALKIZA • Tel.: 943 69 18 36

ARANDIA
JATETXEA
Telf. 943 65 22 62 ALTZO

Cid
Hurbildu...eta sartu!!
Tel.: 943 65 27 12 •Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA

honekin ziber ileapaindegia
943 67 22 44
Santa Maria plaza, 1
20400 TOLOSA
ASTELEHENA : 15:00-20:00
ASTEARTEA-OSTEGUNA: 9:00-13:00 15:00-20:00
OSTIRALA : 9:00-20:00 (egun osoa irekita)
LARUNBATA : 8:00-13:00
EZ MOZTU ! zatoz gure ziber ileapaindegira

**JESUS ETXEZARRETA** ▸ RICHARD ARGAZKIDENDA

# «Aldaketarik nabarmenena argazki makina digitalen erabilera izan da»

## Lehen jaunartzea gogoratzeko argazkilariengana jotzen dute askok; gehienek estudiora jotzen duten arren, egunean bertan egiteko eskaerak ere izaten dira

**EMAITZAK**

«Argazki makina digitala erabiliz emaitza hobeak lortzeko aukera daukagu nahiz eta lan gehiago eskatu»

**LANA**

«Erraza izaten da haurrei argazkiak ateratzea; helduak baino naturalagoak izaten dira»


O.ESKITXABEL

Argazkilaritza munduan lanean urte asko daramatza Jesus Etxezarretak. Jaunartzeko argazkiak, estudioan zein kalean ateratzen ditu eta egun horren inguruko prestakuntzak, eskaerak... azaldu dizkio HITZAri.

**Estudioan edota kalean egiten dira lehen jaunartzeko argazki gehienak?**
Gehienak —denak ez esatearren— estudioan egiten ditugu; hala ere, lehen jaunartzea egiten den eguneko argazkiak ere nahi izaten dituzte batzuk eta egunean bertan elizara joaten gara tarteka. Baina ez da ohikoa izaten.

**Aldaketa asko izan al dira azken urteetan?**
Gauza asko aldatu dira; formatuari dagokionez, lehen argazki txikiak izaten ziren eta orain, berriz, handiak. Albumak ere lehen baino handiagoak izaten dira. Haurrak ere ez dira lehen agertzen ziren posturetan egoten; modu naturalago batean ateratzen dizkiegu argazkiak. Hala ere, aldaketarik nabarmenena argazki makina digitalen erabilera izan da.

**Argazki gehiago ateratzeko aukera izango duzue.**
Haur bakoitzari 40 argazki inguru ateratzen dizkiogu; gero, txartelatik borratu eta listo. Lehen ez geneukan aukera hori, karreteetako gastua asko garestituko bailitzateke. Argazki makina digitala erabiliz emaitza hobeak lortzeko aukera daukagu, nahiz eta lan gehiago eskatu.

**Dekorazioan ere izan dira aldaketak.**
Oraindik gurutzeak eta erlijioarekin zuzenean lotutako antzeko osagaiak erabiltzen diren arren, bestelako osagaiak erabiltzen ditugu gehienbat. Aurten, egurrezko altzariak, karabista... jarri ditugu.

**Garaiz ibiltzen al dira argazkiak ateratzeko ordua hartzerakoan?**
Jaunartzea egin baino bi hilabete lehenago etortzen dira gutxi gorabehera gurasoak. Aste bete lehenago etortzen direnak ere badaude.

**Bezeroek eskakizun zehatzak izaten dituzte edo zure esku uzten dute lan hori?**
Argazkiak ateratzera etortzen direnean haurra hemen utzi eta joan egiten dira guraso asko. Gure esku uzten dute lan hori.

**Eta nolakoa izaten da haurrekin egin beharreko lana?**
Orokorrean, erraza izaten da haurrei argazkiak ateratzea. Haurrak, helduak baino naturalagoak izaten dira eta joku asko ematen dute. Ilusio handiz etortzen dira, gainera.

hitza
lagunen txokoa

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon osagaiak
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62
LUMEN
ILUMINAZIOA

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

ILEAPAINDEGIA honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero